



beste hamaiika bizitzeko_

**Azpeitiko Sanagustin
kulturguneak 10 urte**
DOSSIERRA

SARRERAKOA

Azpeitiko Sanagustin kulturguneak 10 urte bete ditu, eta Herri Batzordea sortu dugu. Joango gara ardatzen eta egitarauaren berri ematen. Dena dela, 10. urtemuga ez dugu ospakizunera eta ibilbidea aztertzeraz mugatu nahi, etorkizunean ere jarri nahi baitugu begirada.

Herriko kultur komunitatearen eta udalaren arteko elkarlanaren fruituetako bat da Sanagustin. Kultur Mahaiaren (2006) egitasmoa da, eta haren kooperatiba Kulturaz-ek kudeatzen du. Baita Soreasu antzokia eta Dinamoia sormen gunea ere. Bertako taldeen jarduera ere aintzat hartuz, kultur proiektu global bat da Azpeitikoa.

Bateratasuna ardatz hartuta, beraz, bide bat urratzen ari gara.

- Ez da soilik egitasmo lokala, nazionala ere badelako, eta Euskal Herriaren lurralde kohesiorako ere inportantea, hirigune handienetik kanpo ere mugimendu kultural bizirik badelako.
- Herriko eragileen nahiz (Euskal Herriko) besteen plaza da, eta sortzaile berrien gune.
- Azpeitia bera ere biziberritzen ari da (parte zaharra, batik bat).
- Proiektu ekonomiko esanguratsua ere badelakoan gaude. Kulturazek 25 bat langile ditu, milioi eta erdiko aurrekontua aurten, inpaktu ekonomiko handia...

Ikus. Azpeitiko kultur komunitate artikulatuaren **ibilbidea**.

Azalpen zabalagoa, *Jakin* aldizkaria (2016), 99-109. orrialdeak.

10. URTEMUGAKO HERRI BATZORDEA

Sanagustin kulturgunearen 10. urtemugarako Herri Batzordea sortu dugu.

Kideak:

- Azpeitiko Kultur Mahaia.
- Haren kooperatiba Kulturaz.
- Bi udal taldeak: EH Bildu eta EAJ.
- Kultur komunitateko norbanako batzuk.



10. URTEMUGAKO EGITARAUA

2021eko udazkenara artean egingo ditugu 10. urtemugako ekinbideak. Zehazten ari gara egitaraua.

Momentuz, iragar dezakeguna da:

- Herritarren Sanagustineko bizipenekin argazki mosaiko erraldoia osatu nahi dugu, udaberrian.
- Proiektuari buruzko kapsulak argitaratzen hasiko gara, Azpeitiko eta Euskal Herriko kultur sortzaileei egindakoak.
- Udaberrian, bi jardunaldi, nazio mailakoak: kultur artikulazioaz, eta herri ekimena eta kooperatibismoaz.
- Ekainean, Dinamoa sormen gunearen irekiera ekitaldi ofiziala.

Gainera, aurki Azpeitiko Udalak eta Kulturaz kooperatibak 2024ra arteko hitzarmena sinatuko dute (beste 4 urtez luzatzeko aukerarekin).

UDALA-KULTURAZ LANKIDETZA HITZARMENA

Aurten bertan (otsailean), Azpeitiko Udalak eta Kulturaz kooperatibak lankidetzaren hitzarmena sinatu dute, 2024ra artekoa (beste 4 urtez luzatzeko aukerarekin). Sanagustin kulturgunea, Soreasu antzokia eta Dinamoa sormen gunea erabiltzeko eta ustiatzeko hitzarmena da. Udalak aho batez onartua du, plenoan.

Argazkiak I



Juan De Antxieta Musika Eskolaren jaialdia, 2017an, Sanagustin kulturgunean (Agazkia: Kulturaz / Alberto Beloki).



Mikel / aboa 11 aborsetara ikuskizuna, Mikel laboaren heriotzaren 10. urteurrenean, 2018ko abenduan, Sanagustin kulturgunean (Agazkia: Kulturaz / Alberto Beloki).

Argazkiak II



1766ko Azpeitiko matxinadaren inguruko ikuskizuna, 2018an Soreasu Antzokian (Argazkia: Kulturaz / Alberto Beloki) .



Hitzaren Eskolako irakasleen klaustroa, 2020ko otsailean Dinamoaren sormen gunean (Argazkia: Kulturaz).

Argazkiak III



Labana eta Urbana arte grafikoaren esperimentazio tailerreko une bat, 2020an, Dinamoia sormen gunean (Argazkia: Kultura7).



Horman Poster antzerki konpainia sormen egonaldian, Dinamoia sormen gunean, 2020an (Argazkia: Kulturaz).

**beste
hamaika
bizitzeko_**

Informazio gehiago:

**Sanagustin
kulturguneak**
10 urte
BLOGA

10. urtemugako
sare sozialak



Kulturaz kooperatiba
www.kulturaz.eus



Dinamoa sormen gunea
www.dinamoa.eus



Kontaktua:

bestehamaikabizitzeko@gmail.com